# Urrunagako urtegia



**Urrunagako urtegia 1957.** urtean jarri zen martxan, alde batetik, Bilbo eta Gasteizko hirigune handiak urez hornitzeko eta, bestetik, Barazarreko lurpeko urjauziaren bitartez energia elektrikoa sortzeko. Barneko hezegune honek balio handia du urari loturiko landare- eta fauna–komunitateak mantentzeko, bereziki uretako hegaztiei beren migrazio–paseetan babesa eta elikadura emateko gune gisa.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

## LANERAKO GAIAK

- Azpiegitura hidraulikoa: urtegiak, edateko ura banatzeko sarea.
- Uraren kudeaketa egungo gizartean: hornidura, erabilerak eta gehiegizko erabilerak.
- Undurragako uharka: energia sortzea, energia kontsumitzea, energia aurreztea.
- Ur garbia eta ur zikina: uraren kalitate ekologikoa, parametroak, hondakin–mailak, kutsadura.
- Eutrofizazio–prozesua: alderdi positiboak eta negatiboak.
- Egungo landaredia eta izan daitekeena: hariztia eta ibaiertzeko landaredia.
- Uretako landaredia: landarediaren garrantzia urtegiaren erabileretan.
- Hegaztien behaketa: (morfologia, elikadura, azturak), enklabe honek hegaztien migrazioan duen garrantzia, ingurunearen harrera–ahalmena.
- Ekosistemarentzako arriskuak eta mehatxuak: aldaketak uraren mailan, kanpoko espezieen sarrera, ehiza...
- Giza jarduera inguruan: abeltzaintza, esnetarako behi–azienda.
- Usadio tradizionalak: Ollerieta, eltzegileen herria, euskal zeramikaren museoa, inguruko artisau–tradizioa.